

«Kontzentrazio gobernua» eskatu ditu Huertasek udaletarako

Froilan Elespe Lasarte-Oriako zinegotzi sozialistari omenaldia egin zioten atzo, ETak hil zuela urtebete zela eta

Agentziak | DONOSTIA

Datozen udal hauteskunde ondoan eratu diren gobernuak «kontzentrazio demokratikokoak» izatea nahiko luke Manuel Huertas Gipuzkoako PSE-EEko idazkari nagusiak. Asmo hori azaldu zuen atzo, duela urtebete ETaren esku hildako Froilan Elespe Lasarte-Oriako PSE-EEko zinegotziaren omenaldian.

Lasarte-Oriako hilerrian izandako ekitaldian, Elesperen alargun Tomasi Pelaz, Eusko Jaurlaritzako Biktimen Laguntzarako zuzendari Maixabel Lasa eta buruzagi sozialista ugari izan ziren: Rodolfo Ares legebiltzarkidea, Ramon Jauregi kudeaketa batzordeko presidentea, Ana Urtxuegia Lasarte-Oriako alkatea, Miguel Buen Errenteriakoa eta Alberto Buen Irungoa, besteak beste.

Euskal erakundeetako gobernuetara «ekintza batasuna» eramatearen alde azaldu zen Huertas. «Arriskuak partekatze eta totalitarismoaren kontra azaltzeko garaia iritsi da. Terrorismoa liskar elektoral eta politiko gisa erabiltzea eragotzi behar da», esan zuen.

Haren aburuz, «demokrata guztien lehenengo helburua ETA suntsitzea izan beharko litzateke, ez bakarrik suntsipen politiko eta judiziala, baita poli-

ESANAK

MANUEL HUERTAS

(Gipuzkoako PSEko idazkari nagusia)

«Aberriaren gorazarrea birus larria da. Horrek armaz betetzen du herria, eta garuna hustu»

«ETA suntsitzen ez den bitartean, abertzaleek dituzten helburuak alde batera utzi beharko lirateke»

«Espainiako normaltasun demokratikoaren salbuespen tragikoa da Euskadi»

tikoa, soziala eta morala ere». Suntsipen hori gertatzen ez den artean, «abertzaleen helburuak, besteak beste autodeterminazioa, independentzia eta subiranotasuna, alde batera utzi beharko lirateke».

«Egin dezagun ahalegina elkarriketa demokratikoari berrekiteko, horren bitartez konfiantza politikorako espa-



JAVIER ETXEZARRETA / EFE

Froilan Elesperen alargunak lore eskaintza egin zuen senarraren hilibian.

ruak sortuz», azaldu zuen. Lan hori Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakariari dagokio: «Euskadiren arazo handiena konpontzeko borondate osoa jarri behar du, aberriaren gorazarrea birus larria delako. Horrek armaz betetzen du herria, eta garunak hustu».

Gobernuen arteko koordinazioa

Jose Maria Aznar Espainiako Gobernuko presidentea eta PP ere hizpide izan zituen: «Gehiago arduratzen dira sozialistak susmopean jartzeaz, babesteaz baino». «Ibarretxe eta Aznarren gobernuak ez dira gai euren artean koordinatzeko, herritarren segurtasuna bermatu ahal izateko. Nazkatuta gaude. Espainia osoko normaltasun demokratikoan salbuespen tragikoa da Euskadi, eta hori hala izatera ohitu dira», gaineratu zuen Huertasek.

EAJ eta EAK Estatutua «eten-gabe zalantzan» jartzen dutela uste du Huertasek: «Indarkeria erabiltzen dutenekin batera, subiranotasunaren aldeko helburuak defenditzen dituzte. Horrek ahultzen du sistema».

PSE-EEko hiru hautagaien artean ez dagoela «alde estrategikorik» dio Blancok

Agentziak | MADRID

PSOeko Antolakuntza idazkari Jose Blancok PSE-EEko Idazkaritza Nagusirako hautagaiak hizpide izan zituen atzo. Hiru hautagaien artean ez dagoela «alde estrategikorik» adierazi zuen, «aurkeztu diren zuzenketak kontuan hartzen badira».

Zuzenketa horietan «ñabardurak» planteatu direla zehaztu zuen, baina «ez estra-

tegia aldaketarik». Jose Blancok gogoratu zuenez, iraganean ere ez zen alde estrategikorik izan, eta, «beraz, PSOE-ren betiko borroka orain jabetu nahi duten zenbait konbertituren eta hala-holako inolako leziorik ez dugu onartuko».

Haren aburuz, «Espainiako gizarteak zorra du euskal sozialismoarekin. Berak sendotu zuen gehienbat herrian demokrazia, berak sufritu du

gehien askatasuna defenditzeagatik, eta berak du bere bizkar gainean odol, izerdi eta malko gehien, askatasuna eta bizikidetzeko demokratikoa defenditzeagatik», nabarmendu zuen PSOeko Antolakuntza idazkariak.

Bestalde, EAEko organo instituzionalen izendapenak berritzeko aukerari buruz, PSEren Kongresua igaro arte ez dela «inolako akordiorik» izango jakinarazi zuen.

MOBILIZAZIO egunak herriz herri:

>>>>>> MARTXOAK 22

OÑATI: Girotea

ARRASATE: Kontzentrazioa 19tan S. Altube plazan

EIBAR: Manifestazioa 19:30tan Unzaga plazan

HENANI: Kontzentrazioa 12tan Osasun Etxean

OIARTZUN: Kontzentrazioa Merkataritza

DONOSTIA:

(Alde Zaharra): Kontzentrazioa 19tan Elizaren ikastetxean

(Amara Berria): Kontzentrazioa 12:30tan Pio XII plazan

ZUMAIA: Manifestazioa 20tan plazan

AZKOITIA: Kontzentrazioa 20tan

ZARAUZ: Manifestazioa 19tan Musika plazan

BILBO: Manifestazioa 20tan Arriagan

BASAURI: Manifestazioa 19tan Bentako plazan

BARAKALDO: Ekumena 20tan Foru pasealekuan

LEZAMA: Kontzentrazioa

BERMEO: Manifestazioa 20tan Lameran

BERRITU: Kontzentrazioa 20tan

SOPELA: Manifestazioa 19:30tan Udaletxe plazan

IRUÑEA:

(Alde Zaharra): Kontzentrazioa 12tan Osasun Etxean

(Arrosadia): Kontzentrazioa 18:30tan INTELIGENTES-en

LIZARRA: Manifestazio-burrunba

BURLATA: 20tan Askas plazan

GASTEIZ: Manifestazioa 19:30tan CORREOS aurrean

LAUDIO: Manifestazioa 19:30tan Lamuza plazan

>>>>>> MARTXOAK 23

DONOSTIA:

(Erdigunea): Manifestazioa 17:30tan Bulebarrean

(Egia): Kontzentrazioa 19:30tan Plaza Berrian

BILBO (Uribarri): Euskara zapaldua! 11tan

ALTZA: Kontzentrazioa 12tan Larratxoko plazan

ARETXABALETA: Kontzentrazioa 12tan CORREOSen

SORALUZE: Kontzentrazioa

BERGARA: Ekimena(Justizia) 12tan herriko plazan

ORERETA: Manifestazioa 20tan Alamedan

LEZO: Kotxe karabane 11tan

HONDARRIBIA: Kontzentrazioa 12tan Alcampo-n

ANDOAIN: Manifestazioa 12tan Goiko plazan

AZPEITIA: Manifestazioa Epaitegiaren aurrean

ZARAUZ: Bizikleta martxa 11tan Musika plazan

ERMUA: Enkarterada (Udalari salaketa)

GERNIKA: Manifestazioa 20tan Arrien aurrean

ZALLA: Euskararen eguna.Kalejira 19:30tan plazan

DERIO: Manifestazioa 13tan plazan

LEKEITIO: Manifestazioa 19:30tan Eskolapetik

ARRIGORRIAGA: Kontzentrazioa 12tan plazan

LEIOA: Giza katea 19:30tan Osasun Etxetik

ONDARRU: Manifestazio zaratzua 19:30tan Alamedan

DURANGO: Enkarterada 12tan Andra Mari elizpetik

ERROMA: Manifestazioa 12tan Areetako Xake plazan(M-24)

fizialtasuna
ESKURATU!
EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ